2.663

**ORDEN FORAL 454 de 20 de abril de 1998 por la que se aprueba el modelo 310 de declaración-liquidación del régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido.**

El Decreto Foral 18/98, del Consejo de Diputados de 17 de marzo incorpora al sistema tributario del Territorio Histórico de Alava diversas modificaciones que afectan a la regulación de los regímenes especiales del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Dentro de los citados regímenes especiales, el simplificado presenta como principal novedad la modificación del sistema de liquidación de las cuotas derivadas de dicho régimen, en el que el I.V.A. devengado se calcula mediante la aplicación de determinados índices o módulos y en el que el I.V.A. deducible es el soportado por el sujeto pasivo, existiendo la posibilidad de que la Diputación Foral de Alava establezca un importe mínimo de las cuotas a ingresar para cada actividad a la que se aplique este régimen especial.

Asimismo, se establece en el ámbito de este régimen simplificado un sistema de ingreso a cuenta a efectuar en las declaraciones-liquidaciones ordinarias correspondientes a los tres primeros trimestres de cada año natural calculado conforme al procedimiento establecido en el Decreto Foral 26/1998 de 24 de marzo por el que se da cumplimiento para 1998 y 1999 a lo dispuesto en los artículos 37, 38, 39 y 42 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

En consecuencia debe procederse a la aprobación de un nuevo modelo 310, de declaración-liquidación ordinaria correspondiente al primero, segundo y tercer trimestres de cada año natural que deberán utilizar los sujetos pasivos acogidos al régimen simplificado del I.V.A. en el que se incorpore las comentadas novedades.

Visto el informe emitido al respecto por la Jefe del Servicio de Relación con los Contribuyentes, con fecha 15 de abril de 1998.

En su virtud y en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

PRIMERO.- Aprobación del modelo 310.

Se aprueba el modelo 310 ”Impuesto sobre el Valor Añadido.

Régimen Especial Simplificado. Declaración-liquidación ordinaria.

Dicho modelo, que figura como anexo de la presente Orden Foral consta de dos ejemplares: un ejemplar para la Administración Tributaria y un ejemplar para el interesado.

SEGUNDO.- Obligados a presentar el modelo 310.

El citado modelo deberá ser utilizado por los sujetos pasivos del Impuesto sobre el Valor Añadido que ejerzan exclusivamente actividades por las que deban presentar declaración por dicho Impuesto, que tributen en el régimen simplificado, para realizar las declaraciones-liquidaciones ordinarias correspondientes a dicho régimen y a los tres primeros del año natural.

TERCERO.- Plazo de presentación e ingreso del modelo 310.

De acuerdo con los dispuesto en los artículos 39 y 41 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, la presentación del modelo 310 así como su ingreso se efectuará en los veinticinco primeros días naturales de los meses de abril, julio y octubre de cada año, respecto del trimestre natural inmediato anterior a cada uno de dichos plazos.

CUARTO.- Lugar de presentación e ingreso del modelo 310.

Uno. Si de la declaración-liquidación resulta cantidad a ingresar, la presentación y el pago simultáneo de las cuotas se efectuará en las entidades bancarias de crédito o ahorro autorizadas para actuar como entidades colaboradoras por la Diputación Foral de Alava.

Dos. Si de la declaración-liquidación no resultase cantidad a ingresar, el modelo 310 deberá presentarse, bien directamente o mediante envío por correo certificado, en el Servicio de Relación con los Contribuyentes ”Ventanilla Unica” de la Diputación Foral de Alava.

DISPOSICION FINAL.- La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava.

Vitoria-Gasteiz, a 20 de abril de 1998.— El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN CARLOS PERAL SANTOS.



2.663

**454 FORU AGINDUA, 1998ko apirilaren 20koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezi erraztuaren aitorpen-kitapenerako 310 eredua onesten duena.**

18/98 foru dekretuak, martxoaren 17ko Diputatuen Kontseiluarenak, Araba Lurralde Historikoko zerga sistemari zenbait aldaketa eransten dizkio; aldaketa horiek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezien erregulazioari eragiten diote.

Aipaturiko erregimen berezien barruan erraztuaren berikuntza nabariena erregimen horretatik eratorritako kuotak kitatzeko sistemaren aldaketa da. Sistema horretan, sortutako BEZ zenbait indize edo modulu jakin aplikatuz kalkulatzen da eta subjektu pasiboak jasaten du BEZ kengarria. Hala, Arabako Foru Aldundiak erregimen berezi hori aplikatzen zaion jarduera bakoitzerako sartu behar diren kuoten gutxieneko zenbatekoa ezarri ahal izango du.

Era berean, erraztutako erregimen honen arloan kontura ingresatzeko sistema bat ezarri da, urte natural bakoitzeko lehen hiru hiruhilekoei dagozkien aitorpen-kitapen arruntetan egin beharko dena. Diru-sarrera hori 26/1998 foru dekretuak, martxoaren 24koak, ezartzen duen prozeduraren bitartez kalkulatu beharko da. Foru dekretu horrek 1998 eta 1999rako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 37, 38, 39 eta 42 artikuluetan xedaturikoa betearazten du.

Ondorioz, urte natural bakoitzeko lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoei dagozkien aitorpen-kitapen arrunterako 310 eredu berria onetsi behar da. Eredu berri hori aipaturiko berrikuntzak hartzen dituen BEZren erregimen erraztuan esku hartzen duten subjektu pasiboek erabili beharko dute.

Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuko Buruak gai horri buruz eginiko txostena ikusirik, 1998ko apirilaren 15ean.

Horren indarrez eta nire eskumenekoak diren ahalmenak erabiliz, zera

XEDATZEN DUT:

LEHENA.- 310 eredua onestea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 310 eredua ontzat ematen da.

Erregimen berezi erraztua. Aitorpen-kitapen arrunta.

Aipaturiko eredua, foru agindu honen eranskin gisa azaltzen dena, bi alez osatua dago: Zerga Administrazioarentzat ale bat eta interesatuarentzat beste ale bat.

BIGARRENA.- 310 eredua aurkeztera behartuta daudenak.

Aipaturiko eredua Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek erabili beharko dute erregimen erraztuari dagozkion aitorpen-kitapen arruntak urte naturaleko lehen hiru hiruhilekoetan egiteko, baldin aipaturiko zergaren aitorpena aurkeztera behartzen dituzten jarduerak era esklusiboan burutzen badituzte eta erregimen erraztuan ordaintzen badituzte euren zergak.

HIRUGARRENA.- 310 eredua aurkeztu eta ingresatzeko epea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 39 eta 41 artikuluetan xedaturikoari jarraiki, 310 eredua urte bakoitzeko apiril, uztaila eta urrien lehen hogeita bost egunetan aurkeztu eta ingresatu beharko da, epe horietako bakoitzaren aurreko hiruhileko naturalari buruz.

LAUGARRENA.- 310 eredua aurkeztu eta ingresatzeko lekua.

Bat. Aitorpen-kitapenaren ondorioz ingresatu egin behar bada, kuoten aurkeztea eta berehalako ingresatzea Arabako Foru Aldundiak erakunde laguntzaile bezala aritzeko baimena eman dien kreditu edo aurrezkirako banku erakundeetan egin beharko da.

Bi. Aitorpen-kitapenaren ondorioz dirurik ez balitz ingresatu behar, 310 eredua Arabako Foru Aldundiaren Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuan, lehiatila bakarrean, aurkeztu beharko litzateke, bai zuzenean edo bai posta ziurtatuaren bidez.

AZKEN XEDAPENA.- Foru agindu hau Araba Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Gasteiz, 1998ko apirilaren 20an.— Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Saileko Foru Diputatu titularra, JUAN CARLOS PERAL SANTOS.

Diputación Foral de Alava
Arabako Foru Aldundia
Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos
Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

# IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO REGIMEN SIMPLIFICADO

# BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA ERREGIMEN ERRAZTUA

# 310

## IDENTIFICACION - IDENTIFIKAZIOA

ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA
ETIKETA IPINTZEKO LEKUA

DEVENGO - SORTZAPENA

**DECLARACION TRIMESTRAL**
HIRUHILEKO AITORPENA

**EJERCICIO** - EKITALDIA
**PERIODO** - EPEALDIA TR

| | |
|---|---|
| **N.I.F.** - I.F.Z. | **APELLIDOS Y NOMBRE / RAZON SOCIAL** - DEITURAK ETA IZENA /SOZIETATEAREN IZENA |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **DOMICILIO FISCAL (CALLE O PLAZA)** - EGOITZA FISKALA (KALEA EDO PLAZA) | **Nº**-ZK. | **LET.**-LET. | **ESC.**-ESK. | **PISO**-SOLA. | **MAN.**-ALDEA | **TLF.**-TLEF. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ENTIDAD**- ENTITATEA | **MUNICIPIO** - UDALERRIA | **PROVINCIA** -PROBINTZIA | **C.POSTAL** -POSTA K. |

## LIQUIDACION - LIKIDAZIOA

**ACTIVI. AGRIC. Y GANAD. - NEK. ETA ABELTZ. IHARDUERAK**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Descripción actividad** Ihardueraren deskripzioa | 01 | | 11 | | 21 | |
| **Vol. ingresos trimestre** Hiruhileko sarreren zenb. | 02 | | 12 | | 22 | |
| **Indice cuota devengada** Sortutako kuota indizea | 03 | | 13 | | 23 | |
| **% s/ actividad** Ihardueraren araberako % | 04 | | 14 | | 24 | |
| **INGRESO A CUENTA** KONTURAKO SARRERA | **05** | | **15** | | **25** | |
| **SUMA INGRESOS A CUENTA (05 + 15 + 25)** KONTURAKO SARREREN BATURA (05+15+25) | | | | | **80** | |

**ACTIV. EN REG. SIMPLIFICADO (excepto agrícolas y ganaderas) - ERREG. ERRAZTUKO IHARD. (nekazaritza eta abeltzaintza izan ezik)**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Epígrafe I.A.E.** EIZko epigrafea | 101 | | 121 | | 141 | |
| Valor de los módulos (en unidades) / Moduluen balioa (unitateetan): **Módulo 1** 1. Modulua | 102 | | 122 | | 142 | |
| **Módulo 2** 2. Modulua | 103 | | 123 | | 143 | |
| **Módulo 3** 3. Modulua | 104 | | 124 | | 144 | |
| **Módulo 4** 4. Modulua | 105 | | 125 | | 145 | |
| **Módulo 5** 5. Modulua | 106 | | 126 | | 146 | |
| **Módulo 6** 6. Modulua | 107 | | 127 | | 147 | |
| **Indice corrector** Indize zuzentzailea | 108 | | 128 | | 148 | |
| **Cuota devengada** Sortutako kuota | 109 | | 129 | | 149 | |
| **% s/ actividad** Ihardueraren araberako % | 110 | | 130 | | 150 | |
| **Módulo 7** 7. Modulua | 111 | | 131 | | 151 | |
| **INGRESO A CUENTA** KONTURAKO SARRERA | **112** | | **132** | | **152** | |
| **SUMA INGRESOS A CUENTA (112+132 +152)** KONTURAKO SARREREN BATURA (112+132+152) | | | | | **201** | |

**I.V.A. DEVENG. - B.E.Z. SORTUA**

| | | |
|---|---|---|
| **Total ingresos a cuenta del conjunto de actividades ejercidas ( 80 + 201)** Burututako iharduera-multzoko konturako sarreren zenbateko osoa (80+201) | 202 | |
| **Adquisiciones intracomunitarias de bienes** Komunitate barneko ondasun eskuraketak | 203 | |
| **Entregas de activos fijos** Aktibo finkoen emateak | 204 | |
| **I.V.A. devengado por inversión del sujeto pasivo** Subjektu pasiboaren inbertsioagatik sortutako BEZ | 205 | |
| **TOTAL IVA DEVENGADO (202+203+204+205)** BEZ SORTUA GUZTIRA (202+203+204+205) | **220** | |
| **IVA deducible** BEZ kengarria — **Adquisición o importación de activos fijos** Aktibo finkoen erosketa edo inportazioa | **221** | |
| **DIFERENCIA (220-221)** DIFERENTZIA (220-221) | 230 | |
| **CUOTAS A COMPENSAR PERIODOS ANTERIORES EN EL TERRITORIO HISTORICO** HERRIALDE HISTORIKO HONETAN AURREKO EPEALDIETATIK KONPENTSATZEKO KUOTAK | 231 | |
| **RESULTADO** EMAITZA (230) - (231) | 240 | |
| **A INGRESAR** SARTZEKOA | 241 | |
| **A COMPENSAR** KITATZEKOA | 242 | |
| **RECARGO PRORROGA** LUZAMENDU ERREKARGUA | 250 | |
| **INTERESES DEMORA** BERANDUTZA-KORRITUAK | 251 | |
| **TOTAL DEUDA TRIBUTARIA** ZERGA-ZORRA GUZTIRA | **261** | |

**ENTREGAS INTRACOMUNITARIAS** KOMUNITATE BARNEKO EMATEAK
95

**SIN ACTIVIDAD** IHARDUERARIK GABE
90

**FECHA** - EGUNA ..................................

**FIRMA Y SELLO** - SINADURA ETA ZIGILUA

**TOTAL A COMPENSAR** KONPENTSATZEKOA GUZTIRA 262

## JUSTIFICANTE DE INGRESO - SARRERAREN FROGA-AGIRIA

**CARTA DE PAGO** - ORDAIN GUTUNA

| **Sello y firma** Zigilua eta sinadura | **Clave Entidad** Entitatearen gakoa | **Fecha** Eguna | **Importe** Zenbatekoa |
|---|---|---|---|

Este modelo se utilizará por los sujetos pasivos que realicen exclusivamente actividades a las que resulte de aplicación el régimen simplificado del IVA, salvo que renuncien al mismo.

**IDENTIFICACIÓN**

Se consignará la identificación del sujeto pasivo mediante la adhesión de una etiqueta identificativa en el espacio reservado al efecto, en cada uno de los ejemplares. La utilización de etiquetas identificativas es obligatoria en virtud de lo dispuesto en el artículo 4.1 del Decreto Foral 99/1.996, del Consejo de Diputados de 19 de noviembre.

**DEVENGO**

**Ejercicio:** deberá consignarse el año al que corresponde el período trimestral por el que se efectúa la declaración.

**Período:** se hará constar el número 1, 2 ó 3, según que la declaración corresponda al primero, segundo o tercer trimestre respectivamente, del año natural.

**LIQUIDACIÓN**

**Actividades agrícolas y ganaderas**

**-Descripción de la actividad:** se hará constar la descripción de la actividad desarrollada de acuerdo con el Decreto Foral por el que se aprueban los índices o módulos aplicables a las actividades agrícolas y ganaderas.

**-Volumen de ingresos trimestrales:** se indicará el volumen total de ingresos del trimestre, excluidas las subvenciones corrientes o de capital y las indemnizaciones.

**-Índice de cuota devengada por operaciones corrientes:** sobre el volumen total de ingresos del trimestre se aplicará el índice de cuota devengada por operaciones corrientes que tenga asignado cada actividad de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto Foral de aprobación de índices y módulos aplicables a las actividades agrícolas y ganaderas, obteniéndose como resultado la cuota devengada por operaciones corrientes del trimestre.

**-Porcentaje según la actividad:** sobre la cuota devengada por operaciones corrientes del trimestre se aplicará el porcentaje que corresponda a cada actividad según el Decreto Foral de aprobación de índices y módulos aplicables a las actividades agrícolas y ganaderas.

**-Ingreso a cuenta:** será el resultado del producto del índice de cuota devengada por operaciones corrientes por el volumen total de ingresos trimestral, y por los porcentajes establecidos para cada actividad.

**Actividades en régimen simplificado (excepto agrícolas y ganaderas)**

**-Epígrafe I.A.E.:** se harán constar el o los epígrafes del Impuesto sobre Actividades Económicas que correspondan a las actividades acogidas al régimen simplificado.

**- Módulos 1, 2, 3, 4, 5 y 6 e índice corrector:** se harán constar, en unidades, los módulos establecidos para cada actividad y el índice corrector que, en su caso, corresponda.

A efectos del ingreso a cuenta, los módulos e índices correctores aplicables inicialmente serán los correspondientes a los datos base referidos al día 1 de enero de cada año. Si los datos base de cada módulo no fuesen un número entero, se expresarán con dos decimales.

Cuando algún dato base no pudiera determinarse el primer día del año se tomará, a efectos del ingreso a cuenta, el que hubiera correspondido el año anterior. Esta misma regla se aplicará en el supuesto de actividades de temporada.

Cuando en el año anterior no se hubiese ejercido la actividad, los módulos e índices correctores aplicables inicialmente serán los correspondientes a los datos base referidos al día en que se inicie la actividad.

**-Cuota devengada:** se hará constar para cada actividad el importe de las cuotas devengadas calculadas por aplicación de los módulos e índices correctores, en su caso.

**-Porcentaje según la actividad:** se hará constar el porcentaje que corresponda a cada actividad según el Decreto Foral de aprobación de índices y módulos aplicables a cada sector de actividad.

**-Módulo 7:** en el supuesto de actividades accesorias de carácter profesional, se cuantificará el importe del ingreso trimestral aplicando la cantidad asignada para el módulo "Importe de las comisiones" sobre el total de los ingresos del trimestre procedentes de esa actividad accesoria.

**-Ingreso a cuenta:** se hará constar el importe que resulte de aplicar a la cuota devengada el porcentaje que corresponda a cada actividad, más en su caso, el importe resultante del párrafo anterior.

**I.V.A. devengado**

-En la casilla 202 se reflejará la suma del importe de los ingresos a cuenta del conjunto de actividades ejercidas.

-En la casilla 203 se hará constar la cuota devengada correspondiente al total de adquisiciones intracomunitarias realizadas en el período de liquidación.

-En la casilla 204 se harán constar las cuotas devengadas por las entregas de activos fijos realizadas en el período de liquidación.

-En la casilla 205 se hará constar el IVA devengado en el período de liquidación por las operaciones sujetas a gravamen, cuando las mismas se efectúen por personas no establecidas según lo dispuesto en el artículo 84.Uno.2º de la Norma del IVA.

**I.V.A. deducible**

En la casilla 221 se hará constar el importe de las cuotas soportadas deducibles en la adquisición o importación de activos fijos después de aplicar, en su caso, la regla de prorrata.

**Cuotas a compensar de períodos anteriores en el Territorio Histórico**

En la casilla 231 se hará constar el importe de las cuotas a compensar procedentes de períodos anteriores.

**Resultado**

**-A ingresar:** se consignará en la casilla 241 el importe de la casilla 240 cuando éste fuese positivo.

**-A compensar:** si el resultado de la casilla 240 fuese negativo, dicho importe se consignará en todo caso en la casilla 242.

Los importes que figuren en las casillas 261 "Total deuda tributaria" y 262 "Total a compensar" coincidirán con las cantidades que figuren en las casillas 241 y 242 respectivamente, siempre y cuando el importe de estas últimas no se viese incrementado o, en su caso, minorado por la aplicación de recargos, intereses de demora o sanciones pecuniarias.

**Entregas intracomunitarias**

En la casilla 95 se hará constar el importe de las entregas de bienes destinados a otros Estados miembros de la Unión Europea, realizadas durante el período de liquidación.

**Sin actividad**

Deberá marcarse una cruz en la casilla 90 cuando, sin haber realizado actividad alguna en el período, sea preceptiva la presentación de la declaración-liquidación.

**LUGAR DE PRESENTACIÓN**

- La declaración-liquidación con resultado positivo "a ingresar" deberá presentarse en las entidades bancarias de crédito o ahorro autorizadas para actuar como entidades colaboradoras por la Diputación Foral de Álava.

- La declaración-liquidación con resultado negativo "a compensar" deberá presentarse en el Servicio de Relación con los Contribuyentes "ventanilla única".

Eredu hau erabiliko dute BEZaren erregimen erraztua aplikagarria zaien iharduerak bakarrik egiten dituzten subjektu pasiboek, erregimen horri uko egin ezean.

**IDENTIFIKAZIOA**

Subjektu pasiboaren identifikazioa, ale bakoitzean, helburu horrekin dagoen gunean identifikazio etiketa bat itsatsiaz adieraziko da. Identifikazio etiketak erabiltzea derrigorrezkoa da Diputatu Kontseiluaren azaroaren 19ko 99/1996 Foru Dekretuaren 4.1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**SORTZAPENA**

**Ekitaldia:** Aitorpenari dagokion hiruhileko aldia zein urtetakoa den adierazi beharko da.

**Epealdia:** 1, 2 edo 3 zenbakia jarriko da, aitorpena urte naturalaren lehenengo, bigarren ala hirugarren hiruhilekoari dagokion.

**LIKIDAZIOA**

**Nekazaritza eta abeltzaintza iharduerak**

**-Ihardueraren deskripzioa:** Egiten duen ihardueraren deskripzioa jarriko da, nekazaritza eta abeltzaintza iharduerei aplikatzeko indize edo moduluak onartzen dituen Foru Dekretuekin bat.

**-Hiruhileko sarreren zenbatekoa:** Hiruhileko sarrera guztien zenbatekoa adieraziko da, subentzio arruntak edo kapital subentzioak eta kalteordainak sartu gabe.

**-Eragiketa arruntengatik sortutako kuotako indizea:** Hiruhileko sarreren zenbateko osoari aplikatuko zaio eragiketa arruntengatik sortutako kuotako indize egokia. Indize hau, nekazaritza eta abeltzaintza iharduerei aplikatzeko indize eta moduluak onartzen dituen Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera iharduera bakoitzak esleituta duena izango da. Emaitza bezala, hiruhileko eragiketa arruntengatik sortutako kuota aterako da.

**-Ihardueraren araberako portzentaia:** Hiruhileko eragiketa arruntengatik sortutako kuotako indizeari aplikatuko zaio nekazaritza eta abeltzaintza iharduerei aplikatzeko indize eta moduluak onartzen dituen Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera iharduera bakoitzari dagokion indizea.

**-Konturako sarrera:** Eragiketa arruntengatik sortutako kuotako indizea hiruhileko sarreren zenbateko osoaz eta iharduera bakoitzerako ezarritako portzentaiez biderkatzearen emaitza izango da.

**Erregimen erraztuko iharduerak (nekazaritza eta abeltzaintza izan ezik)**

**-EIZko epigrafea**: Erregimen erraztuaren pean jarritako iharduerei dagokien Ekonomi Ihardueren Gaineko Zergako epigrafea edo epigrafeak jarriko dira.

**-1, 2, 3, 4, 5 eta 6 moduluak eta indize zuzentzailea:** Iharduera bakoitzerako ezarritako moduluak, unitatetan, eta, hala badagokio, indize zuzentzailea jarriko dira.

Konturako sarreraren ondorioetarako, hasiera batean aplikatzeko diren modulu eta indize zuzentzaileak urte bakoitzeko urtarrilaren 1eko oinarri-datuei dagozkionak izango dira. Modulu bakoitzeko oinarri-datuak zenbaki osoa izan ezean, bi dezimalekin adieraziko dira.

Oinarri-daturen bat urtearen lehenengo egunean zehaztu ezin daitekeenean, konturako sarreraren ondorioetarako, aurreko urtekoa hartuko da. Arau hau berau aplikatuko da denboraldiko ihardueren kasuan.

Aurreko urtean iharduera burutu ez baldin bada, hasiera batean aplikatzeko diren modulu eta indize zuzentzaileak iharduera hasi den eguneko oinarri-datuei dagozkionak izango dira.

**-Sortutako kuota:** Iharduera bakoitzerako, sortutako kuoten zenbatekoa jarriko da, moduluak eta, hala dagokionean, indize zuzentzaileak aplikatuz kalkulatuta.

**-Ihardueraren araberako portzentaia:** Iharduera-sektore bakoitzari aplikatzeko indize eta moduluak onartzen dituen Foru Dekretuaren arabera iharduera bakoitzari dagokion indizea jarriko da.

**-7 modulua:** Lanbide izaerako jarduera gehigarrien kasuan, hiruhilekoaren sarreraren zenbatekoa modu honetan kalkulatuko da: "komisioen zenbatekoa" izeneko modulurako izendatutako kopurua aplikatuz jarduera gehigarri horretarik hiruhilekoan lortutako sarrera guztei.

**-Konturako sarrera:** Jarduera bakoitzari dagokin ehunekoa kuota sortuari aplikatu eta ateratzen den zenbatekoa jarri behar da,gainera, hala gertatzen bada, aurreko lerroaldetik ematen den zenbatekoa.

**BEZ sortua**

-202 laukian, burututako iharduera-multzoko konturako sarreren zenbatekoaren batura adieraziko da.

-203 laukian, likidazio aldian egin diren Komunitate barneko erosketen zenbateko osoarengatik sortutako kuota jarriko da.

-204 laukian, likidazio aldian egindako aktibo finkoen emateengatik sortutako kuotak jarriko dira.

-205 laukian, zergapean dauden eragiketengatik likidazio aldian sortutako BEZ jarriko da, eragiketa horiek BEZari buruzko Arauaren 84.Bat.2. atalean ezarritakoaren arabera finkatuta ez dauden pertsonek egiten badituzte.

**BEZ kengarria**

221 laukian, aktibo finkoen erosketan edo inportazioan jasanarazitako kuota kengarrien zenbatekoa jarriko da, hala dagokionean hainbanaketa-erregela aplikatu eta gero.

**Lurralde Historiko honetan aurreko epealdietatik konpentsatzeko kuotak**

231 laukian, jatorria aurreko epealdietan duten konpentsatzeko kuoten zenbatekoa jarriko da.

**Emaitza**

**-Sartzekoa:** 241 laukian, 240 laukiko kopurua jarriko da, hau positiboa baldin bada.

**-Konpentsatzekoa:** 240 laukiko emaitza negatiboa izanez gero, kopuru hori beti ere 242 laukian jarriko da.

261 "Zerga zorra guztira" eta 262 "Konpentsatzekoa guztira" laukietan agertzen diren kopuruak, hurrenez hurren, 241 eta 242 laukietan agertzen diren kopuru berdinak izango dira, baldin eta azken hauetako kopurua gehituta edo -hala dagokionean- gutxituta gertatzen ez bada errekarguak, berandutza-korrituak edo diru-zigorrak aplikatzearen ondorioz.

**Komunitate barneko emateak**

95 laukian, likidazio aldian Europar Batasuneko beste estatu batzuetarako egin diren ondasun-emateen zenbatekoa jarriko da.

**Iharduerarik gabe**

90 laukia gurutze batez markatu beharko da epealdian inolako iharduerarik egin ez eta aitorpen-likidazioa aurkeztea beharrezkoa denean.

**AURKEZTEKO TOKIA**

- Emaitza positiboa, hau da, "sartzekoa" duen aitorpen-likidazioa, Arabako Foru Aldundiak entitate laguntzaile bezala ihardutеko baimendu dituen banku, aurrezki edo kreditu entitateetan aurkeztu beharko da.

- Emaitza negatiboa, hau da, "konpentsatzekoa" duen aitorpen likidazioa, Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuan, "leihatila bakarrean" aurkeztu beharko da.